

# BERRIGARA

66. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, maiatzak 29

## 92 RAKO DIRUAK

UDAL BILKURAK  
AURTENGO  
AURREKONTUAK  
ONARTU DITU:  
1.860 MILIOI

## SALTO DEL NEGRO

PROTESTALDI  
UGARI ASTEAN  
ZEHAR,  
EKINTZA  
BIOLENTOAK  
TARTEAN

## KIROLAK

BERGARAK  
MAILAZ IGO  
DEZAKE  
LARUNBATEAN



**Kontuz eguzkiarekin !!**

Burberrys  
Yuste  
Unicen  
Miguel Ibars  
Lider  
Exigency  
Punto Blanco  
Peyton

**Gizonezkoentzako jantziak**

**egizabal**

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER  
Panama Jack  
Privata  
Runner  
Pons Q.  
Ferrerias  
Paco Herrero  
George's

# II. FOLKLORE JAIALDIA

Maiatzak 30, gaueko 10,30etan BERGARAKO PILOTA LEKUAN  
SARRERA DOHAINIK

**XAMATZ DANTZA TALDEA**


**KOBOK DULTZAINEROAK**

**TXALAPARTARIAK**

**IOSU ETA IOKIN  
TRIKITRILARIAK**

ANTOLATZAILEAK

BABESLEA:



XAMATZ

BERGARAKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EMAKUMEA eta OSASUNA JARDUNALDIAK

✓ **EKAINAK 1, ASTELEHENA**

"MENOPAUSIA"

IKUSPEGI PSIKOLOGIKOA ETA SEXUALA

✓ **EKAINAK 2, ASTEARTEA**

"NORBERE BURUAREKIKO ESTIMAZIOA"

VIRGINIA IMAZek gaiarekin zer ikusia  
daukan CLOWN PARODIA bat aurkeztuko du

✓ **EKAINAK 3, ASTEAZKENA**

"ETXEKO ANDREEN SINDROMEAK"

VIRGINIA IMAZek gaiarekin zer ikusia  
daukan CLOWN PARODIA bat aurkeztuko du

### LEKUA

UDALETXEKO  
PLENO  
ARETOA

### ORDUA

ARRATSALDEKO  
4retan

### HIZLARIAK

**PILAR OTEGUI**  
Sexu Informaziorako  
Udal Zerbitzuaren Sexologoa  
**ALAZNE EIZAGIRRE** eta  
**KARMELE ZELAIARAN**  
Psikologoak

ANTOLATZAILEA: Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua - Enplegu eta Gizarte Arazoetarako Saila  
PARTEHARTZAILEAK: Gipuzkoako Foru Diputazioa - Emakunde

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jauriaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa :** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Loge gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### ZEZEAGA ETA ETXANIZ

Jose Mari Zezeaga eta Jokin Etxaniz pelotariak dakarzkizuegu oraingoan asteko protagonistak bezala.

Larunbatean herriko pelotalekuan jokatu-tako estelarrean, pelotari bergarrek Retegi III.a, Arteaga eta Bernari aurre egin zieten eta baita 22 eta 15 irabazi ere. Partidua beste munduko gauza izan ez arren, Jose Marik eta Jokinek lor dezaketen mailaren froga erakutsi zuten jendeaurrean.

Futbolean bezala, hemen ere gizon bat gutxiagokin jokatzeko indarra eman ziela dirudi eta datozen txapelketetan eta hurrengo binakako txapelketan gauza haundiak egitera iritsi daitezkeela argi uzi zuten. Kanporaketa guztietan hirukoteak jartzen ez badizkiete behintzat... Bergararrak laister txapeldun?



### Bergarar bikoteak hiruren kontra irabazi

## ITURRI ONETIK

### Tabernetan prezioak gora

Aurten ere Pazkuetako jaien bezperan, tabernarietako prezioak igotzeko aprobeztatu dute. Kalean entzuten da igoera "astronomikoak" izango direla baina tabernarietako esan digutenez, edari gehienetan ez da % 10a baino gehiago izango. Tabernetan tabernara aldeak egon badaitezke ere, ardo berezia eta zerbezak 10 pezeta inguru igoko omen dira eta kalimotxoak 15 pezeta.

## ESAN DUTE

"Ezin naiteke ibili edozein egunetan plazarik-plaza, zeren jendeak bertso onak entzun nahi ditu eta nireak ez dira hain onak".

**AINHOA AGIRREZALDEGI**  
Bertsolari gaztea  
TXAPA IRRATIA

"Nere anaiari entzun izan diot El Salto del Negro bezalako beste gartzelarik ez duela ezagutu".

**MARIA JOSE OREGI**  
"Panti"ren arreba  
ARGIA

"Europa mailan tela bakeroen lehen produktorea gara. Inbertsio haundiak egin ditugu, gure lantegiak berrituz ditugu eta momentu honetan tela merkatuan gure posizioa nahiko fuertea da".

**PAUL MARKOARTU**  
San Antonioko Algodonerako Finantza Zuzendaria  
EUSKADI IRRATIA

**ELKAR**

**ELEKTRAGINTZA**


Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

**MINER Ardo onak, ardak jakina**


Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

# ZINEA



## EL ULTIMO BOY SCOUT

Ostirala: 19.30 eta 22.30  
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astlehena: 19.30.



## TODO LO QUE QUIERO PARA NAVIDAD


Igandea: 11.30.

▼▼ **Bruce Willis** aktore ezaguna detektibe azkarraren paperetara abonatuta dagoela dirudi eta, bera tartean, akzioa ez da faltako, dudarik ez. Hemen, kirol profesionalean ematen den korrupzioari egin beharko dio aurre eta ziur egon ez dela jokoz kanpo geratuko.

▼▼ Uda atarian egonda, denboradaz kanpo heltzen zaigu Gabonetako komedia hau. Amerikarrek familia osoak ikus ditzan urtero honako pelikulak egin ohi dituzte eta ordu t'erdi zine aretoko berotasunean igarotzea baino ez dute helburu. Gabonetako ipuin bat.

# ERAKUSKETAK

• **Oleoz egindako margoen erakusketa:** Jose Ignacio Treku margolari debarrak egindako 15 koadroren erakusketa igandera arte ikusgai Kultur Etxean.



Jose Ignacio Treku

• **Akuarelaz egindako margo erakusketa:** Antonio Arrillagak azken lanen bilduma bat erakusten du Naikari tabernan maiatzaren 31ra arte.

# KONTZERTUAK

• **Ange Duhalde** ostiralean, gaueko 10.30etan, pelotalekuan. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

• **Rock kontzertua:** Desconocidos eta Lord Byron, ostiral gauean Arrasateko Gaztetxean.

**JOSE  
LUIS**  
eta  
**MIKEL**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

A  
R  
R  
A  
N  
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

# HITZALDIAK

• **Emakumea eta Osasuna**  
gaiari buruzko hitzaldi sorta:

- "Menopausia". Hizlariak: **Pilar Otegi, Alazne Eizagirre eta Karmele Zelarain.** Astelehena, hilak 1.

- "Norbere buruarekiko estima-zioa". **Virginia Imazek** gaiarekin zerikusia daukan **Clown Parodia** bat aurkeztuko du. **Astearte**, hilak 2.

- "Etxekoandreen sindromea". **Virginia Imazen Clown Parodia.** **Asteazkena**, hilak 3.

Guztiak arratsaldeko 4retan **Udaletxeko Pleno Aretoan.**

# FARMAZIAK

• **Larunbata 30:**  
Camacho/Azkoaga (Arrasaten gauez).

- **Igandea 31:** Mozos/Español.
- **Astelehena 1:** Puy.
- **Astearte 2:** Guallar.
- **Asteazkena 3:** Estella.
- **Osteguna 4:** Mozos.
- **Ostirala 5:** Camacho.

# OGIA

• **Igandea 31:** Ogizun.

# KIROLAK

## FUTBOLA

• **Bergara-Lazkao.**  
- Larunbatean 17.00etan Agorrosinen.

• **Astelehena:**  
- **Arloteak-Zoropetroak** (Ipin-tzan, 19.30etan).  
- **Os Jardineiros-Zabetx** (20.30-etan).

• **Astearte:**  
- **Ikasi-Intxisu-Azken Postu** (19.30).

- **Zapelaitz-Bar Panaderokua** (20.30).

• **Asteazkena:**  
- **Ogizun-Mongatxurra** (7.30).  
- **Amilotx-Ezinleike** (8.30).

• **Osteguna 11:**  
- **Zoropetroak-Ikusi-Intxisu** (7.30).  
- **Bildurbarek IAM-Os Jardineiros** (8.30).

• **Arku Tiraketa:** Larunbatean 10.00etan Seminarioan.

# AUKERAN

**II. Folklore Jaialdia** ospatuko da larunbatean, hilak 30, gaueko 10.30etan pelotalekuan. Xamatz dantzataldea eta Udalak antolatuta, bertan, Xamatz dantzataldea bera, txalapartariak, Kobok dultzaineroak eta Iosu eta Iokin trikitilariak hartuko dute parte. Jaigiroa, beraz, ziurtatuta duzue larunbat gauerako.



# MAKAILO

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

# Iturkintz Berri

## INSTALAZIOAK:

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

- Iturkintza
- Berogintza
- Gas

Tfnoa:  
76 28 04

**Gure delittoa gaztea eta abertzalea izatea**

Askok jakingo duzuen bezala, orain dela aste batzuk (maiatzaren 9an), Polizia Nazionalak Jarrairen V. biltzarrara asaltatu zuen. Zenbaitek, ziur aski gertaera honi buruzko bertsio oker bat izango duzue, komunikabide gehienek manipulaturiko informazioa jaso duzenok hain zuzen ere. Hau honela izanik, benetan gertatu zena azaltzeko asmoz zuzentzen gatazkaizkie.

Aurrerago aipatu dugun bezala, hilaren 9an Polizia Nazionala Bilboko Txurdinaga auzoan dagoen institutuan sartu zen, bertan geunden 315 gazteok deteniturik eduki gintuztelarik. Indarrez eta inongo baimen judizialik gabe han azaldu ziren kriston poliziatzarrak, porra, kasko, eskudo, kargatutako pelotero, pistola eta abarrez horniturik.

Honela, poliziak, gure artean zegoen komunikazioa moztu egin zuten, haundikeria eta tentsioa inposatuz.

Bertan, beraiekin hitz egitera zuzendu ziren Errenteriko Tximu eta Bergarako Migelon porrazoen legeaz atxilotu zituzten, tentsio haundieneko momentua hau izanik. Ekintza hau kaxeo eta banakako identifikazioek jarraitu zuten, honela beraien artxiboak gaurkotuz.

Bukatzeko, detenituen askatasuna eskatzeko Indautxuko komisaldegira hurbildu ginenean, sekretetek beste 22

lagun atxilotu zituzten.

Bestalde, Buesak, irakaskuntza saileko ordezkariak, ekintza polizial hau zentrua ilegalki okupatu genuela esanez justifikatu zuen. Ilegalki?. Hori gezur ustela hori. Bilera instituto hortan aurrera eramateko bertako zuzendaritzaren baimena genuen, eta hau esatera etorri ziren zentruko zuzendaria, ikasketa burua, hainbat abokatu, etab. Hala ere, 2 ordu pasatu arte ez zieten barrura sartzen utzi. Gainera, poliziak argi eta garbi azaldu zuen bere helburua zein zen, Buesak "desalojoa" agindu zuen, beraiek guztiok identifikatu ondoren, armatoste guztiak hartu eta irten ondoren, guri atzera barrura sartzen utziz.

Gehiago luzatu gabe, hau 1.992 urte honetan jasan dugun beste errepresio neurri bat besterik ez dela izan aipatu nahi dugu. Asko izan dira eta beste asko izango dira bai guk bai presoek jasan behar izango ditugunak. Guzti honengatik, denon artean errepresioari aurre egiteko dei bat luzatzen dugu. Adi egon.

**Bergarako Jarrai**

**Beiraren arazoa**

Eguzkiko kideei aspaldidanik kezkatu digu kristalaren jasoketa eta birziklapenaren prozesua. Eta gai honekin lotuta zenbait galdera dauzkagu gure buruetan:

- Igluak jarri zitirenetik ez "Vidrala" enpresak, ez Udaletxeak, ez Mankomunitateak, ez Diputazioak, ez Eusko Jaurlaritzak, inoiz ez dute datorik kaleratu.

Hala eta guztiz ere datu ofizialak ezagutzeko aukera izan dugu, baita jakin ere gure eskualdea Gipuzkoatik gutxien biltzen den lekua dela.

- Ondo aztertuta al dago igluen distribuzioa?

- Ez al dira tabernak eta dendak beira gehien kontsumitzen edo erabiltzen dutenak?

Galdera hauek erantzun ahal izateko Udaletxean proposamen konkretu bat sartu dugu. Puntu hauek ditu:

- Jendea sensibilizatzeko eta birziklapena eta beirari buruzko zenbait azalpen emanaz triptiko bat ateratzea.


- Zenbait tabernatan beira jasotzen duen pertsona batekin harremanetan jarri gara, pertsona hau taberna gutzietatik pasatzeko prest egongo zen.

- Tabernariei eta dendariei luzatuko genien idatzi bat, beiraren problematika azalduz. Guzti honekin batera eta zaborraren inguruan ihardunaldi batzuk antolatuta nahi dugu.

Hau dena gertatuta daukagu baina dirurik ez daukagunez, Udalaririk dirulaguntza eskatu diogu. Oraindik, ez dugu erantzunik jaso.

**Eguzki**

**Tiira ba!**



**Josu Okina**

## Emakumea eta Osasuna ihardunaldiak

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak antolatuta, *Emakumea eta Osasuna* ihardunaldiak izango dira datozen ekainaren 1, 2 eta 3an, Udaletxeko Pleno aretoan, arratsaldeko 4retan. Pilar Otegi sexologoa eta Alazne Eizagirre eta Karmele Zelaiaran sikologoak hizlari izango direlarik, astelehenean *Menopausiaren ikuspegi sikologikoa eta sexuala* aztertuko da; asteartean *Norbere buruarekiko estimazioa* eta asteazkenean, azkenik, *Etxeko andreen sindromea*. Azken biotan, Virginia Imazek gaiarekin loturiko clown parodia bana eskeiniko ditu.

## Herriko gutxituek Diputazioaren laguntzak jaso ditzakete

Gipuzkoako Diputazioak, aurreko gutxitu fisiko, sikiko eta sentimenezkoei zuzenduriko laguntzak emango ditu. Laguntza hauek asistentzia espezializatua, garrarioa, zenbait materiale edota laguntza teknikoak (gidatzeko karneta ateratzeko laguntzak esaterako) behar dituzten gutxi-ek eska ditzakete, baldin eta baldintza batzuk betetzen badituzte. Horrela, laguntzak ematerakoan, beharra, dauzkan laguntza-premiak eta egoera ekonomikoa izango dira kontutan.

### 200 gutxitu

Era berean, eskuratu nahi den materiala oso garestia den zenbait kasuetan, tratamendua luzatzen den bitartean, Diputaziotik bertatik utzita



jasotzeko aukera egongo da.

Gure herrian 200 gutxitu inguru dira (fisiko, sikiko eta sentimenezkoak zenbatuz) eta pasa den urtean, 2.300.000 pta. inguruko aurrekontuarekin, honelako 17 eskakizun egin izan ziren (2 besterik ez ziren onartu). Aurten, berriz, 10 eska-

kizun egin dira oraingoz eta Diputazioak oraindik ez du zehaztu emango duen laguntza.

Laguntzetan parte hartu nahi dutenek Udaleko Zerbitzu Sozialetako bulegora jo beharko dute ekainaren 15a (aldizkako eskakizunetan) edota abuztuaren 30a baino lehen.

## Sasoi onean jubilatutak

Astebukaeran amaituko da jubilatuetan aste osoan zehar herriko zaharrei eskeini zaien Omenaldi Astea. Pentekoste jaiei aurrea hartuz, prestaturiko programa zabalean denetarik izan dute jubilatuek: jolasak, lehiaketak, dantzaldiak, txokolate-jana, hitzaldiak..., etab. luze bat. Sasoi onean daudela erakutsiz, egunero primeran pasatzen ari dira eta asteazkenean grebaren ondorioz izan zuten *atsedenaren* ondoren, astebukaeran ere jaigiroa izango da nagusi. Igande eguardian, amaitzeko, salda eta ardoa banatuko dira eta Xamatzen dantza-ikuskizuna izango da.



## BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarik konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaiz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

❑ **Oilagorra**


Kaza lizentzia renobatu nahi dutenek elkartetik pasa daitezke datozen ekainaren 1, 2, 3 eta 4ean, iluntzeko 8etatik 10era bitartean.

❑ **Laguntzak**

Bergarako Udalak Udako Euskal Herriko Unibertsitatera zein barnetegi ezberdinetara joan nahi duten herritarrentzat laguntzak ematen ditu. Joan nahi dutenek argibide gehiago jaso dezakete Euskara Zerbitzuan.

❑ **Odol emaeleak**

Hamabostean behingo odol emateekin jarraituz, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek, datorren asteazkenean, ekainak 3, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean, Seminarioko lokalean egingo den odol ematean parte hartzeko dei egiten du.



**Buesaren aurka**

Asteartean emandako prentsaurrekoan, Andoni Etxebarria Aranzadi Ikastolako zuzendariak eta Aitor Eraña Erretore Kontseiluko lehendakariak, ikastetxe honek Buesa Hezkuntzako kontseilaria bere kargutik kentzeko hasi duen kanpainaren berri eman zuten. Beren esanetan, "Aranzadi Ikastolak, Ikastolen Federakundearekin bat eginik, kanpaina horri ekin dio kontseilari sozialistak euskara eta euskal kulturaren inguruko guztiaren kontra eginiko adierazpenenga-

tik".

Aranzadi Ikastolak ez du onartzen, "Buesak, kargu publiko bat izanik, honelako adierazpenak egitea eta hain zuzen ere kanpaina Aranzadi zuzentzen zaio neurriak, har ditzan".

Gauzak horrela, larunbat eguardian sinadura bilketa egingo da Plazan, bildutako firmak lehendakariari bialduko zaizkiolarik. Era berean, kolaborazioa eskatuz, sinatze-txartelak Euskara Hitzarmena sinatu duten taldeei bialduko zaizkiela adierazi zuten.

❑ **HIESaren astea HIESaren inguruko Ihardunaldiak**

burutuko dira Arrasaten ekainaren 1etik 7ra bitartean. HIESaren Kontrako Komite Hiritarrak antolatuta, astelehenetik ostegunera hitzaldiak izango dira arratsaldeko 7etan Monterronen eta astebukaerarako, besteak beste, antzerkia, musika, bertsolariak, eta erakusketak iragarri dira.

❑ **Brusa lehiaketa**

Jaietarako JARDUN Elkartek antolatutako Brusa lehiaketara aurkezteko epea luzatu egin da datorren ostiralera arte, ekainak 5. Parte hartu nahi duzuenok, kuadrilaren argazki bat koloretan (18x24 zm.), esaldi bat euskaraz eta, azkenik, kuadrilearen brusa bat aurkeztu beharko duzue. Sari bikainak egongo dira eta izena emateko JARDUNera (Kultur Etxera) jo beharko duzue ostirala baino lehen.


Atsedeen zentrua  
**LOKARTU**  
Koltxoi-Denda  
Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

**Ziripot**  
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**LAGUN ARO**  
ASEGURUAK  
Agentea:  
**RAMON IRAEGUI**  
.....  
  
ORDEZKARIA BERGARAN  
Ramon M. Lili 6  
Tfnoa: 76 23 30  
Faxa: 76 41 54  
20.570 BERGARA

**VID-ART**  
Bidriera artistikoak  
BIDRIERAK - MURALAK -  
ISPILUAK-KRISTAL  
BISELATUZKO  
ATEAK - etab.  
Azal eiguzu zure ideia  
**VID-ARTEk**  
egingo dizu.  
BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA  
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54





## Greba orokorra

Asteazkenerako Euskal Herri osoan konbokatutako greba orokorra eragin nabarmena izan zuen Bergaran ere. *Dekretazo* ospetsua eta krisi industrialaren aurka protestatzeko LAB, ELA, CC.OO sindikatuek konbokatu eta UGTk lagundu zuen greba honek gure herrian erabateko arrakasta izan zuela esan genezake.

Goizean goizetik piktete informatiboak ibili ziren lan egiten hasi ziren lantegietan greba egiteko arrazoien berri ematen. Horrela, goizeko lehen

orduatarako guztiz geldirik zegoen jadanik Bergara; ikastetxe, lantegi, komertzio eta Udalak berak bere ateak itxi zituzten eta eguardiko 12etan manifestaldi bat burutu zen herriko kaleetan zehar, jende ugari parte hartu zuen. Greba eguna batzuzentzat aldarrikatze eguna izan bazen ere, beste askok, eguraldi ona zela medio, hondartza zein mendira joateko aprobetxatu zuten. Hori pentsa daiteke behintzat egunkarian agertutako argazkiak ikusita.

# Txinpartak

✓ **Sexologoaren Zerbitzua** zabalik egongo da ekaineko astelehenetan, 4retatik 7etara, Anbulategian.

✓ **Infernuko gidarien** ikuskizun espektakularra izango da igandean, maiatzak 31, eguerdiko 12etan eta gaueko 9 terdietan, Beheko Estazioan.

✓ **Zine-Klubaren** emanaldirik ez da izango datorren ostegunean, hilak 4. Denboraldiko azken bi filmak ekainaren 11n (*El largo invierno del 39*) eta 18an (*La carne*) emango dira.

✓ **Eguzki** talde ekolojistikak dei egiten du Kuardrilen egunean Deba Ibaian egingo den Balsa lehiaketan parte hartzeko.

✓ **Estampa lehiaketa** ez da azkenik egun horretan ospatuko parte hartze nahikoa ziurtatu ez delako.

✓ **Arrasateko INEMeko** bulegoak orain gutxi jasandako erasoaren ondorioz, INEMeko arduradunek lokala Oñatin edo Bergaran kokatzeko jesiotan dabilta. Orainarte Arrasateko lokalera joaten zirenek Eibarko bulegora joan beharko dute lokal berria zabaldu bitartean.

✓ **Txoznak** jartzeko Bide-berriko pasealekua libre utziko du Udalak. Horrez gain, argi instalazioa jartzeko konpromezua hartu du, zenbait kontzertu bertan ospatuko direlarik herriko jaietan.



*Las Postas*  
KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)  
Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA  
(ARABA)

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta**  
**eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**AFA - BI**  
**Manufakturak, S. L.**

**P.V.C. Arozgintza eta aluminioa**  
**Veka Sistema (Alemaniarra)**

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

# 92ko aurrekontuak: 1.860 milioi herria gobernatzeko

Joan zen astelehenean aprobatu zituen Bergarako Udalbatzak 92rako aurrekontuak. HB eta EAren onspena jaso ez arren, Udal Gobernu osatzen duten EAJ, PSOE eta EEren botuak nahikoak izan ziren 1.860 milioitako presupuestoa aurrera ateratzeko.

Aurrekontuen onarpenerako deitutako urjentziako Osoko Bilkurara ez ziren agertu Jose Luis Elkoro eta Aitor Aginagalde HBko zinegotziak eta Plenoak iraun zuen bitartean Senideak taldeko 30 bat lagun, El Salto del Negroko egoerari buruzko pankarta bat eutsiz Udaleko Pleno Aretoan izan ziren.

Ezohizko Osoko Bilkuraren urjentziako deialdia baieztatu ondoren, Victoriano Gallastegi alkateak presupuestoaren ardatz nagusiak eman zituen ezagutzera.



Gastuei dagokienez, 477 milioi (gastu guztien laurdena), gastu korronteetara bideratuko dira. 302 milioi (% 16a), Ondasun Korrante eta Zerbitzuen erosketara, eta Inbertsioek hartuko dituzte, aurrekontu guztiko partidarik garrantzitsuenak, 700 milioi hain zuzen ere (gastuen % 37,7a).

Diru sarrera garrantzitsuenei dagokienez, 670 milioi (% 36a) Transferentzia Korranteetatik, hau da administrazioen subentzioetatik, etorriko dira eta 480 milioi inguru (% 25,8a) zerga eta tasen bitartez.

Aurreikusitako den zorra % 21,7koa da eta ia zoko presupuestoekiko % 18an haunditu dira aurtengokak.

## HBren enmendakinak

HBk Osoko emendakina eta 21 emendakin partzial aurkeztu zituen. Lehenengoa ez zen onartu eta 21 emendakina partzialetatik hiru bakarrik onartu ziren, hain zuzen ere, Musika Eskolari 3 milioitako dirulaguntza ematea, aurrekontuaren kontzeptuak euskaraz ezartzea eta lokal bat erostea.

## VICTORIANO GALLASTEGI (ALKATEA)

Beharrezkoak diren inbertsioak egingo ditugu: Udaletxearen berriztapena, Merkatu Plaza... Azken hau aurreko legealdiko egitasmoa da eta nahiz eta orduan kostu haundiegia zuela iruditu zitzaigun, proiektua aurrera eramateko ardura hartu dugu eta 130 milioi sartu ditugu presupuestotan Merkatua bukatzeko.

## ANAJE NARBAIZA (HB)

Inbertsioetara diru larregi bideratu da. HBk beste era batera banatuko luke dirua, esaterako, Hezkuntza Koordinatzailea eta Merkatu Plaza martxan jartzeko gestorea kontratatuko genituzke, INEMeko lanpostuetarako ere diru partida inportantea sartuko genuke...

## J. M. GARITANO (EA)

Egin behar diren obra erraldoietarako 500 milioitako kreditua eskatzea Udala hipotekatzea da.

Udalaren berriztapenaren eta Unzeta Ruiz de la Prada parkearen, esaterako, horrenbeste diru gastatzearen aurka gaude. Guk diru gehiena industriara eta hezkuntzara bideratuko genuke.

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

# Kanpazarko San Migel

## Imilaun bat gari

**L**ehengo ermita zaharra, XVIgarren gizaldian ezagutzen zena, Kanpazarko lautadan zegoen, Angiozarko Goimendi auzoan, agian "dantzalekua" izenaz ezagutzen den inguruetan. 1.794an Bizkaitar Gudariak hor gelditu ziren frantziarren aurka, eta ermita bota egin zuten. Maiatzaren zortzian ospatzen zuten San Migelen agertaldiaren jaiak, eta aingeru santu honen babesean ipinita zeuzkaten fruituen eta animen ona. Kanpaia inguruko pagadi baten adarretatik zintzilik utzi zuten.

Azkeneko bederatzirteetan harri erasoak lurrak ondatu zituela eta Goimenditarrek ermita berriro altxatzea pentsatu zuten. Hamalau baserri ziren, eta beste Angio-

zarko eliztarren laguntza pixka batekin 1.891an berria egitea erabaki zuten, baina hau Zuloeten gainaldera, Gontzarrietatik Lasarterako bidean. Geroago, 1863an aterpe bat ere egin zitzaion, erromeri egunetarako premiak eraginda. Ermitako gastuak ordaintzeko eta bere eginkizunak mantentzeko, Auzoko baserri bakoitzak garizko "Imilaun" bat ematen zuten abuztu aldean.

Beste ermita askoren antzera, kontuak eramateko maiordomua urtero izendatzen zuten, hemengo apirilean, San Migelen agerraldiaren jaietako meza eman, Angiozartik "letaniak" joaten zitzaienten, tenporaletako edo konjuroetako meza ematen zen, eta ganadu gauetarako Auzoko Hermandadea zegoen.



Badaude zenbait gai erantzunik bilatu ezin zaienak edo erantzun zaila, behintzat dutenak: agian ermita zaharra Erorrio eta Elgetako mugan zegoen (Bizkaiko eta Gipuzkoako mugetan). Angio-ZAR, Kanpa-ZAR..., zergatik ZAR horiek?... Kanpazar= inoiz entzun izan dut mehategiak zuedela Udalaitzen eta hemendik amildutako kanpaiak gelditu ote ziren Kanpazarren...

Inguruetan gutxienez

hiru hilobi megalitikoak daude, Aranzadi taldekoek aitortu dutenez.

Gontzarri eta Altunetik beheraxeago dagoen Epelen labe zaharrak zeuden; oraindik arrastoak ikusi daitezke. Angiozarko zahar batek, Berraondotar batek, Epelen egindako sablea ikusi omen zuten Madrileko museo batean. Neri Gontzarriko gizonak ere esan zidan.

*Imanol Sorondo*

*Pepelu*

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**ANTIA**

HARATEGIA


URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**SANTOS**

**IRRATI - TB**



**TB-Soinua-Bideoa  
Antena instalazioak  
Kanal Pribatuak  
Sukalderako altzariak  
Argiztapenak**

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

# Pantiren osasun egoera gero eta larriagoa

*Protestaldiak eta zenbait ekintza biolento izan dira astean zehar*

Salto del Negroko espetxean gose eta egarri greban dirauen "Panti" preso bergararraren egoerak egunetik-egunera txarrera egiten du. Horregatik protestatzeko, enkartelada eta manifestazioak burutu dira aste osoan zehar. Ekintza biolentoak ere, larunbat eta astelehen gauean hainbat eraikuntzari egindako erasoak, esaterako, notizia iturri izan dira.

Jadanik 35 egun gose greban eta 6 egarri greban eman dituenean, Salto del Negro espetxe kanariarrean preso dagoen Xabier Oregi Panti bergararraren egoera gero eta larriagoa da. Normalean 90 kilo pisatzen badu ere, gaur egun 65 kilorekin aurkitzen da.

Asteartean espetxeko eritxera eraman zuten beste 7 presorekin batera, "hala ere enfermeriako medikuak esan digu bere eskuetan gauza haundirik egiteko posibilitaterik ez duela", esan digu Pantaleonek, Xabier Oregiren aitak.

Pantiren gurasoak jaietan Kanarietako presondegira



joatekoak dira Xabierren egoera gertu-gertutik ezagutu ahal izateko: "astebete dela deitu zigun telefonotik eta ez joateko esan zigun Xabierrek, gurekin egoteko indarri ez zuelako" adierazi digu Pantaleonek.

Xabier Oregiren senitar-tekoen eritziz, Salto del Negroko euskal presoak egiten ari diren gose eta egarri greba lehenbailehen uzten ez badute, bertan hil daitezke.

Bitartean, Salto del Negron Panti eta beste euskal presoek bizi duten egoerarengatik protestatzeko enkarteladak burutu dira aste osoan zehar.

## Ekintza biolentoak

Gai honekin jarraituz, Banco de Vitoriako eta tele-

fono kabinetako kristalak apurtu, eta autobus urbanoetan pintadak egin zituzten ezezagun batzuk larunbat gauean.

Astelehenganean, ostera, epaitegiara jaurtitako koktel batek kalte ugari eragin zituen 2. epaitegian.

Antza denez, eraso egin aurretik, 2. epaitegiaren ondoan (Goiko Plazatik Gartzela Zaharrera igotzeko bidean) dagoen farola bateko argia puskatu zuten lehenengo, ondoren lehiotik koktela jaurtitzeko. Koktelak eragindako sutearen ondorioz, gelako paretak zeharo kiskladu, elektrizitate sistema hondatu, ordenadore pantailetan eta fotokopiagailuan hainbat kalte eragin eta paper batzuk erre egin ziren. Hala ere, eta Bergarako epaileak jakinerazi digunez,

"informe batzuk, behintzat, salbatu ditugu".

Sutea ez zen beste gela batzuetara zabaldu, Ertzantzak berehala emendatu zuelako.

Aipatu beharra dugu, bestalde, ostegunean Berri-garako erredakzioan jasotako dei batek zera zioela: "larunbat eta astelehen gaueko erasoak Salto del Negroarengatik izan ziren" eta ez zuen deia inolako talderen izenean erreibindikatu.

## Gobernu Batzordearen gaitzespena

Esan dezagun, azkenik, astean zehar gertatutako ekintza biolentoen gaitzespena egin duela Udal Gobernu Batzarrak gure erredakziora bidalitako idazki baten bitartez. Idazkiak honela dio:

"1.992ko maiatzaren 25ean Udal Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, Alkateak hala proposatuta, joan den larunbat gauean izandako basakeria ekintzak (telefono kabina eta Banco de Vitoriaren kristal apurketa, autobus urbanoetan pintadak egitea eta zenbait etxebizitza partikularretara arraultzak botatzea) publikoki salatzea onartu zuen".

**IGARO**  
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak  
 ✓ Eder gela  
 ✓ Bio Solariuma  
 Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**Kabuzia**  
**ARRAINDEGIA**  
 Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

**Garnish**  
**Bitxitegia**  
 San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57



## Eguzkitan jartzeko garaia

**Gorputza beltzaran izatea modan dagoela eta, asko dira ordu piloa eguzkipean pasatzen dituztenak. Baina modan egoteak bere arriskuak ere baditu, eguzkitan egoteak kalteak ekarri ditzake eta neurriak hartzea behar-beharrezkoa da.**

Begoña Etxaniz esteti- zian bergararrarekin izan gara.

**- Ona ala txarra da gorputzaren azalarentzat, eguzkitan egotea?**

- Alde batetik ona da bitaminak hartzen direlako, baina azkenaldian kongresuetan entzun izan dut eguzkitan ez egotea komenigarria dela. Ozonoko geruzaren zuloak, gainera, gero eta alergía

eta gaixotasun gehiago sortarazten ditu, ezagutzen ez diren izpiak filtratzen direlako.

**- Eguzkitan egotekotan, zenbat denbora egotea komeni da?**

- Lehenengo aldiz eta krema babestaile barik jarri ezkeror hamar minutu baino gehiago egotea kaltegarria da. Bestalde, uda osoan zehar eguzkitara krema barik joatea ez da komeni. Askok uste

dute beltzaran jartzen garenean kremaren beharrik ez dugula, baina oker daude. Gainera krema horiek hidratanteak izaten dira eta eguzkitan egon osterako oso ondo etortzen dira. Bestalde, segun eta zein azala moeta izan, era bateko edo besteko krema erabili behar da.

**- Zer motatako kremak erabili behar dira?**

- Eguzkia hartu baino

lehen azala garbitzea, espoliante bat egitea ondo etortzen da zeren eguzkia hartzen dugunean azalaren dauzkagun hildako zelulak agerian geratzen bait dira eta mantxak irtetzen zaizkigu, batez ere neguan kremarik ez erabiltzearen azal sikatu egiten zaigulako. Eguzkitara goazenean, oster, krema babestaile ezberdinak daude, maila ezberdinakoa, eta eguzkia hartu ondoren *After-sun* direlakoak edota beste batzuk, eman behar dira.

Horiez gain, orain irten berriak dira melanina areagotzeko, kolorea errazago hartzeko, beste krema batzuk...

**- Eta eguzkia hartu gabe beltzaran jartzeko kremak ere badira ez?**

- Bai, baina horiek tintak bezalakoak dira, azala tintatzea bezala da, baina ez dira azalarentzat kaltegarriak.

**- Gero eta gehiago dira solariumetara doazenak. Osasun-arriskak al dira solarium horiek?**

- Egia esan, eguzkitara joatea baino seguruagoak izan daitezke. Solariumean, behintzat, badakigu zer izpi moeta hartzen dugun eta zenbat denbora egon behar garen; ondo neurtzen dugu. Eguzkitan zailagoa da.

### MARKIEGI Automobilak

**Automobil eta kamioien karrozeria**

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)  
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



u m e l a g a  
**JATETXEA**

San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21

# Zubiberri

## Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



## ETXE AUNDI

Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

# FS

oto istema

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

# BOLINTXO

## Okindegia

San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4, EIBAR  
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE

# JULIA

## Frutadenda


Matxiategi 4 Behea BERGARA

## Zer iritzia duzu asteazkeneko Greba Orokorrari buruz?



**Soledad Ruiz**  
58 urte, etxeandrea

Ondo dagoela uste dut,  
langileen eskubideak  
defenditzeko.



**Juan Moreton**  
59 urte, pentsionista

Beharrezkoa izan da baina  
Euskal Herrian eta hemendik  
kanpo egun berean egin  
beharko litzateke.




**David Azpiazu**  
27 urte, irakaslea

Grebarekin gobernuak  
merezitako zigorra jaso duela  
uste dut. Egia esan ez zegoen  
beste irtenbiderik.



**Pili Unamuno**  
33 urte, langilea

Beharrezkoa izan dela uste  
dut, eta ea honekin zerbait  
lortzen dugun...



## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



**Bartzelona,  
denona**

Ez, ez pentsa blaugranak eta bere Europako kopari buruz arituko naizenik, kataluniarrek ondo irabazitako europear txapel horregatik omenaldi eta zorionak ugari jaso dituzte eta.

Badirudi 1.992 urte ospetsu honetan Madril, Sevilla eta Bartzelona bata besteari protagonismoa uzten ari direla. Urtearen hasieran Madril izan zen arreta guztiak bereganatu nahi zituen hiria, baina Europako Kulturaren Hiriburuak arrakasta gehiegi ez du lortu. Sevilla ordea, laister munduko begiradaren helburua bihurtu da eta laister ere egunkarien lehen orrialdeetara salto egin du Exporen egoitzak. Ondoren eta uda aurkezten duten beroekin batera, Bartzelona 92ren zurrumurruak heltzen ari zaizkigu.

Betisko hirian bezala, Mediterraneo aldean, bartzelonarrek Joku Olinpikoen mailako gertaera garrantzitsu horretaz baliatu dira bere etxea berritzeko. Sevillan, AVE tren eta zubiek ekarri dute aldakuntza nagusia, Bartzelonan, berriz, hiria inguratzen duen errepide berriak eta lehen trenbide eta lantegi zahar batzuk zeuden lekuan "Villa Olimpica" eraiketari esker aspaldiko ametsa bete dute bartzelonarrek: hiria itsaso aldera zabaltzea.

Gure artean Bartzelona '92ari esker amets hau lortuko bagenu poztuko nintzateke: kirol zaletasuna berrituz, kirol gehiago egin. Zoritxarrez, herri hau kirolari baino kirolzalea da. Jokuak bertan ikusi ezin dugunez, zabal dezagun behintzat bere espiritua kirola egiten (lehenengo, ni neu).

**German Larrañaga**



**Pertsonaia  
gaiztoa eta ona**

Domekan Ladis Galarzak bere bigarren txapela jantzi zuen Anoetako frontoian Julian Retegiri 22 eta 12 irabazi ondoren. Sekula ikusi diodan partidurik onena jokatzu gainera. Hura zen etsaia txikitzeko modua. Marrazki bizidunetako pertsonaia gaiztoa ematen zuen, heroearen burua behin eta berriz zapalduz, pareta kontrara bidali eta erantzun gabeko galderak marrastuz. 21 eta 9rekin Julianek sakea hartu zuenean itxaropena nabaritzen zen pelotazale-ikusle askoren artean. Ia partidurik galdu gabeko, ia historieta bat berean ere galtzaile irten gabeko pertsonaia onak buelta eman ziezaiokela markagailuari uste zuten. Bai zera! Ez zuten iragarri, baina seriearen azken atalaren itxura hartu nion.

Berriro ere garbi gelditu da txapelketa honetan, Galarza dela nagusi momentu honetan. Baina garbi gelditu da, baita ere, eskailera sistema hau aldatu egin behar dela. Kirol gehienek eboluzionatu dute, bizitzak berak eboluzionatu du eta pelotak mende hasierako lehiaketa egiturari eusten dio. Boxeoak eta xakeak, nik dakidanez, erabiltzen dute antzerakoa: txapeldunei aurre egingo dion "retadorea" bilatzen da.

Ez dut uste Ladisek aro berri bat osatuko duenik banakako txapelketan, Atano IIIak, Gallastegik, Azkaratek, Retegi I.ak eta Retegi II.ak egin zuten moduan. 32 urte dauzka eta berandu heldu da gailurrera. Txa pelketa honek transizio urteak ere bizi izan ditu eta beharbada horietan gaude.

**Joseba Lezeta**

**PRiMi**

- ✓ Mariskoak, arrain fresko eta izoztuak .
- ✓ Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan: 76 15 90  
San Antonion: 76 21 08  
Matxiategin: 76 21 91

**GESTORIA  
EGUREN**

*M. Pilar Eguren Diez*  
Kolejlatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea,  
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45

**Kailash  
Zentro Esoterikoa**

*Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean diplomatutako  
profesionalak.*

•tarot-a •Hipnosia •Erresonantzia  
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

*Tximak  
Ileapaindegia*

Fraikoze 3, Tfnoa: 76 56 69


**ederTU**

**ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK**  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 **BERGARA**

# Beheko Taberna


Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## □ Kulturako Diputatua Berrigarán

Joan den astean **Maria Jesus Aranburu** Kulturako Diputatua izan genuen *Berrigarán* bisitari. Herri bakoitzean gauzak nola funtzionatzen duten gertutik ikusteko egiten ari den bisitaldien barne, **Koldo Pereira** eta **Andoni Larrañaga** zinegotzien eta **Rufina Olasagasti** Kultur Jestorearen laguntzaz, Kultur Etxera hurbildu zitzaigun. Bertan, eskeintzen diren zerbitzuen eta... *Berrigarán*ren berri eman zioten.



## □ Toki-Eder, bazkari ederragoa

Igandean, **Toki-Ederreko** jaiei amaiera bikaina emateko, bertako auzokideek herri-bazkari *galanta* egin zuten. Hemen ere, jaietan bezala, giro aparta eta barre ugari. Eta, nola ez, lortutako arrakasta ikusirik, datorren urtekoetan pentsatzen hasi dira jadanik...

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
  - P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

# Hagin klinika

*Idoia Iriarte Irureta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

# SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA  
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09





**□ Lauron artean, 100 urte ezkontuta**

Argazkian dituzuen bi bikote hauek beraien ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu berri dituzte. **Gregorio Muruamendiaraz** eta **Maria Larrañaga** (ezkerrean) eta **Julian Leturia** eta **Floren Alberdi** duela 50 urte, maiatzaren 21ean, ezkondu ziren Antzuolako Uzarragan eta, zoritxarrez, ez zuten laurak batera zelebratzerik izan orduan bezala; Floren gaixotu eta baserrian, familikoekin izan ziren egun berezi honetan bera eta Julian. Gregorio eta Mariak aldiz, Uzarragan meza entzun ondoren, bazkari ederra izan zuten Txopekuan. **ZORIONAK** lauroi eta osasuna ez dadila falta!!

**□ Kanpeoiak**

Kopako finalarekin amaiera eman zitzaien joan den igandean futbito txapelketari. **Etxagik**, eskuratu zuen kopa **Toki-Ederri** 5eta 4 irabaziz eta hirugarren postua **Ariznoarentzat** izan zen, **Arloteak** taldeari 6eta 0 irabazi eta gero. Ondorengo sari banaketan, aipatutakoez gain, **Mongatxurra**, **Etxagi** eta **Revienta** izan genituen liga txapelketako lehenak eta **Salinerok**, berriz, golegile onenaren saria jaso zuen.



**Zertan dibardute ba?**

**IÑAKI AZKARATE**



Ikasmet enpresan kalidade kontrola eramaten duen 36 urteko bergarar hau, Bartzelonako Unibertsitatean, Zientzia Kimiketako doktore izendatuko dute datorren ekainaren 9an.

**ANDONI DIAZ**



33 urteko bergarar honek Sevillako Triana auzoaren inguruan, Yerena kalean, Olé Kafetegia zabaldu du. EXPOra bisitalditxo bat egiteko asmoa baduzue, badakizue non hartuko zaituzten hobekien.

**K**abia  
*Altzariak*  
 Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

**EXUKUN**  
**BEREZITASUNAK**  
 Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
 BERGARA

## Umore giroan

### Falluak ordaindu

"Gantxus" beñ kar-tetan ziarduan lagun ba-tzukin Errebal kaleko Kafe Trinketian. Don Isaak Biteri medikua be antxe zeguan begira. Orretan, onetan, "Gan-txus"ek fallo aundi bat egin zeban, eta Biterik, eskuak burura eruanaz:

- Baiña, "Gantxus", ori zelan eñ leikek!

Eta "Gantxus"ek:

- I, Biteri, gauza bat esan biar deuat: emen, jokuan, falluak pagau e-itxen ditxuk. Zuek medi-kuok, barriz, falluak be kobrau eitzen dozuez.

\* \* \*

### "Otuan" kontra kejak

"Otua"k esan baze-ban esan "Kuixa"k bedar txarren bat jan ete zeban,

autobatzailiak juan ziran ugezabagana, bengantza moduan, "Otua"ren kontra au eta bestia esanaz, batez be dibujogintzan lorak gaizki eitzen ze-bazela eta esanaz... Uge-zabak deitxu zetsan "Otu-a"ri:

- I, "Otua", iregatxik kejak kaukadaz. Lorak gaizki eitzen ei ditxuk...

"Otua"k bazekixan nundik zetorren gauzia, eta erantzun:

- Neguan zelan nai do-zuz bat udabarriko lorak eitxia?. Giañera, Ondo eingo banixuke, benetako lorak diralakuan, kuixen batek jango lixukez...

Ugezabak emon ze-tsan barriari.

- Tira, "Otua", juari az-kar aure lekura, irekin al-perrik dok eta.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Iturritxo etxea

Bergarako nobleteriak XVI. mendean hiribilduaren mugan eraiki zituenen arteko beste etxezar bat dugu honako hau.

Jauregi etxeari erantsi-tako edifizioa da, harek be-zala, aspaldiko botere feu-dala azpimarratzen duen ezaugarririk ez duena. Bere bi fatxadak, Bidekurutzeta kalera begira nagusia eta garai bateko baratzeeta-rantz zuzendua albokoa, harlanduzkoak dira, eta nagusian famili harmarria eta puntuerdiko arkuko sarbidea agertzen da ederki landutako dobela sendoak erakutsiz; guzti horrek XVI. mendearen erdialdeko ur-teetara garrantza.


XVI. mendearen erdial-dean eraikuntzak eraberri-keta garrantzitsuak izan zi-tuen Antonio de Jauregi Salazarrek bultzatu zitue-nak bertan bizi izan zen ga-



raian, Ignacia de Jauregi Zavalarekin 1.648an ez-kondu ondoren (77); zaldi-tegi eta tolareak berreraiki ziren eta etxea berriztatua izan zen (78). Garai hone-tan egoitz-izaera haundiko fatxadako baoak eta barru-kaldea berregin ziren eta etxeari gaurdaino iritsi den egarbe tailatu bikaina erantsi zitzaion. Etxea arestian izan da berreraikia eta kanpoko itxura baino ez da gorde.

M.J. Aranburu eta  
J. Gil Masa

### Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

## GISASOLA BURDINAKI DENDA

### "Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

## ELADIO OINETAKOAK

### Oinetako konponketa



MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA

## REMENTERIA

### Altzariak


Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artetale 6, Tfnoa: 76 13 29

# BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



Patxi Barrutiak irabazi du oraingoan BONOFOTOko saria. 10.000 pzta eman diogu sari modura berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen zen jauregia **Errekalde Jauregia** zela eta bertan bizi izandako azken kontearen abizena **Gaitan de Ayala** zela, zuzena zelako. Zorionak Patxiri eta, besteok, segi jokatzen!!

Zein da **baserri** honen izena?

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Aste honetako  
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia**  
**20.570 Bergara**

**MEMESA**



**SKF**




Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

*Biltoki*

**GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!**



Sukalde eta bainugelarako mobleria  
Diselnu eta goimallako kaitatea  
5 urteko garantia

San Pedro z/g  
Tfnoa: 76 34 00

**PHILIPS**



Teknologia eta diselnu  
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-  
LINEekipoak  
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6  
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko aitzariak eta gazteentzakoak  
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,  
tapizak,...  
apaingarriak

San Martin 2  
Tfnoa: 76 43 51

**LILURA**

**Edertze institutua**

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
Bakoitzarena banan-banan zaindu  
beharra dago.  
Utzi ezazu benetako espezialisten  
eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

**BERGARA**

# Nagusientzako futbol txapelketa jokatzeko hasi da Ipintzan

Atzo jarri zen martxan Ipintzako futbol zelaian nagusientzako futbol txapelketa. Bergara K.E.k antolatuta, guztira, beterranoen kategorian (33 urtetik gorakoentzat), hiru taldek hartuko dute parte, Beti-Ona, Madura eta Txipironek hain zuzen ere. Helduetan, berriz, (18 urtetik gorakoentzat), 20 taldek eman dute izena. Honetan, 5 ekipoko lau talde egin dira eta talde bakoitzeko lehen biak sailkatuko dira final laurdenetarako.

## Uztailera arte

Etxagi, Erdibiterrak, Pikapiedras, Ogizun eta Mongatxurak osatuko dute talde bat; Angiozar, Talleres S. Josepe, Txamonix, Amilox eta Ezinleikek bigarrena; Ikaizis, Azkenpoztu, Zoro-



potroak, A ze flaxa eta Arloteakek hirugarrena eta, azkenik, Zapelaitz, Panaderokua, Zabetx, Bildurbarek eta Os Jardineirosten artean irtengo dira beste bi talde final laurdenetarako.

Partidu guztiak aste barruan jokatuko dira 7.30etatik aurrera (bi partidu egunero) eta txapelketaren finala uztaila-

ren 10ean (beteranoena) eta 16an (helduena) jokatuko dira. Antolatzaileen esanetan, "10 urteko hutsunearen ondoren ez genuen uste hainbeste talde apuntatuko zirenik". Atzoko emaitzei dagokienez, beterranotan, Betionak eta Madurak bana berdindu zuten eta Mongatxurak 3 eta 1 irabazi zion Pikapiedrari.

## □ Pala

Igandean jokatuko dira Osintxuko pelotalekuan II. Pala Txapelketaren final aurreak: 11tan Txopitea eta Guezalak Laskurain anaien kontra eta, 12etan, Peñalba eta Garmendiak Etxaniz eta Inarraren aurka jokatu dute. Finala ekainaren 14an izango da.

## □ Arku tiraketa

Larunbatean, 10.30etatik ordu batetara, arku tiraketa libre izango da Seminarioko patioan.

## □ Finalera

Bergara K.E.ko 2. mailako kadete futbol taldeak Aldapetaren aurka jokatu du Federazioaren Kopako finala larunbatean, 5etan, Zumaian.



## Preferentea, hurbil

Bergarako futbol taldeak Lazkaoren aurka jokatu du larunbatean, 5etan, denboraldiko partidu garrantzitsua. Azken ihardunaldian atsedena izango duenez, derri-gorrezkoa du Bergarak irabaztea, hurrengo astebukearan besteen emaitzen menpe egon nahi ez badu. Irabazi ezker, bigarren postuari eutsiko lioke (Lazkao, hirugarren, 3 puntutara dago) eta beraz, Preferente mailan izango genituzke bergarrak datorren denboraldian. Arregi entrenatzaileak adierazi digunez, "taldea ondo dago eta Arregiren zalantza daukat bakarrik. Ea nerbioak abaztu eta irabazten dugun"

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER

CAUDAL



HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

**LETE**

**TOLDOAK**

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.  
☎ 79 23 83 ARRASATE  
☎ 76 12 24 BERGARA  
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



*Duela 30 urteko Zubiaurreko jaiak*

**K**ostata dabilta azken urteetan auzoetako jaiak eta aurtengoan Zubiaurrekoek ere kale egin digute. Jendea ez ei dago gustora, baina, itxuraz, lanari ekiteko animo haundirik ere ez da azaldu. Beste urte batean izan beharko!

Ematen duenez, erretratu hau atera zenean jendea halako «saltsetan» sartzeko animo gehitxoagoz zebilen. Argazkiak 30 urte dauzka eta honez gero konturatuko zinetenez, orain ere antolaketa-munduan dabilen gizon batek zituen eskuetan paperak orduan ere: gaur egun Bergarako Alkate denak, berberak.

Antxintxiketa txapelketa bateko sari-ematea da eta honako hauek dira ezkerretik eskumara lehen mailan agertzen direnak: Javier Madariaga, Victoriano Gallastegi, Rosarito Irizar, Mari Paz Alberdi, Mari Puri Laskurain, Nieves Gallastegi (eskua ematen), Begoña Madariaga, Pilar Biain, Gregorio Manso, eibartar korredorea (saria jasotzen) eta Javier Muruamendiaraz «Xapa». Gregorio Mansen atzekaldean Jesus Mari Arregi, honen atzean dagoen neskaitila, Amaia Agirrebeña eta bere eskumalara dagoen gizona, Bretaña.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Itziar Ibarra*

**ONGI ETORRI**  
**Jatetxea**

Tfnoa: 76 63 49,  
ANTZUOLA

**ZAPELAITZ**

Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

**DENA 100**

pzta.tan

Ireki berria

SIMON ARRIETA 3an

**ETXEBIZITZA**

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzentz dituzte: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzentz da (garaje eta guzti) Jakan. ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai Zabalotegin (Mariaren Lagundiaren atzekaldean dagoen etxean). ☎ 76 10 05.

**SALDU-EROSI**

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gaeuz).

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiantomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pza. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pza. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajejan. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pza). ☎ 76 04 22 (gaeuz).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 76 14 79.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako diske-tera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

**LANA**

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

**Hildakoak**

*Victor Poza Poza*  
maiatzaren 25ean, 55 urte  
*Ignacio Fernández Barroso*  
maiatzaren 26an, 68 urte

**Jaiotakoak**

*Carmen Imaz Suarez*  
maiatzaren 16an  
*Jon Moñux Txintxurreta*  
maiatzaren 16an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Bergarako Jaietan etor zaitez gurekin**  
**EXPOra!!**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

*Siaska*  
Dena zure  
haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

# JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



MANGADO  
VOCHOA

ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorentzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxe; 76 02 91. BERGARA



## SORALUZE

## OSTATUA

IREKI

BERRIA!!

- Logela ederrak zerbitzu guztiekin.
- Eguneko menua eta karta.
- Ezkontzak, banketeak, bataioak, enpresako bilerak,...

Arantzazurako Bidea z/g Tfnoa: 76 61 79 - 71 60 70 Faxe: 71 60 70 OÑATI